

# **Amerika eta diaspora euskal literaturan**

Asier Barandiaran Amarika

Udako Euskal Unibertsitatea eta  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Bilbo, 2025

© Udako Euskal Unibertsitatea  
© Euskal Herriko Unibertsitatea  
© Asier Barandiaran Amarika

**UEUren ISBNa:** 978-84-8438-941-5  
**UPV/EHUren ISBNa:** 978-84-1319-688-6  
**Lege-gordailua:** BI-01446-2025

**Inprimategia:** IMPRIME\_ ABZ Impresión Digital  
**Azalaren diseinua:** Igor Markaida  
**Hizkuntza-zuzenketen arduraduna:** Ander Altuna Gabiola

**Banatzaileak:**

**UEU.** Erribera 14, 1.D Bilbo 946 790 546 [argitalpenak@ueu.eus](mailto:argitalpenak@ueu.eus) [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)  
**EHU.** [argitalpenak@ehu.eus](mailto:argitalpenak@ehu.eus) [www.ehu.eus/argitalpenak](http://www.ehu.eus/argitalpenak)  
**Elkar Banaketa:** Haizpea Industria gunea, 1 ADUNA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko aditu batek ebaluatu du jatorrizkoa, *peer review*-erako ebaluazioan, egilearen daturik ezagutu gabe (*double-blind*).

## Aurkibidea

<b>0. Sarrera. Status Questionis .....</b>	<b>9</b>
<b>1. «Euskal gaia»: XX. mendearen bukaera arteko ibilbidea mundu ingelesean....</b>	<b>13</b>
1.1. Laxaltarrak.....	16
1.2. Bestelako anglo-amerikar lanak euskaldunen eta euskal kulturaren inguruan.....	22
<b>2. Euskal diaspora gaztelaniaz eta gainerako mundu erromantzea.....</b>	<b>33</b>
2.1. Haurren erbestea eta <i>El otro árbol de Guernica</i> .....	33
2.2. Euskaldunen ikuspegia gatelaniazko literaturan (Latinoamerikan eta Espainian) eta antzerkian.....	39
<b>3. «Euskal diaspora Ameriketean» delako gaia eta euskarazko literatura .....</b>	<b>45</b>
3.1. Fikzioa, bertso jarriak eta komunikabide idatzietan agerturiko testigantzak .....	45
3.1.1. Ameriketarako bidaia eta Mundu Berrian sartzea .....	47
3.1.2. Artzainen eta bestelako langileen bizimodu latza.....	54
3.1.3. Ameriketako euskaldunek nola dakusaten euren burua eta nola dakusaten Europako Euskal Herria .....	64
3.1.3.1. Artzainak.....	71
3.1.3.2. Kirolariak.....	72
3.1.3.3. Erlijjiosoak.....	75
3.1.3.4. Politikari eta gizartekariak .....	77
3.1.3.5. Emakumeak.....	79
3.1.3.6. Kulturgileak, artistak eta profesio liberalak.....	83

3.1.4. Euskal Herriko euskaldunek nola dakusaten euskal diaspora.....	101
3.2. Euskarazko autobiografia literarioak.....	105
3.3. Bernardo Atxaga eta euskal diaspora .....	112
3.4. Martin Ugalde eta Amerikako erbeste politikoa literaturan.....	121
3.5. Javi Cillero eta AEBko mundua euskal literaturan .....	125
3.6. Amerika euskal egile garaikideen lan literarioetan .....	131
3.7. Euskaldunen diaspora haur- eta gazte-literaturan .....	150
<b>4. Ondorioak.....</b>	<b>163</b>
<b>5. Hautatutako bibliografia.....</b>	<b>167</b>

Gure-gureak ditugu, Euskal Herriko amen  
ume eta geure baserrietatik mundura  
jalgiak. Beren sorlekuan txertatua dute  
bihotza eta Euskal Herriak ez ditu aintzat  
hartzen. Nun da etxeko seme-alaba guztien  
berri dakarren euskal literatura?

Jose Maria Satrustegi<sup>1</sup>

## 0. Sarrera. Status Questionis

«Euskal diaspora Ameriketan» delako gaia euskal literaturan ez da beren-beregi jorratua izan eta bada garaia fokua horretan jartzeko. Edo, modu sinpleagoan esanda «Amerika euskal literaturan» litzateke jorratzera goazen gaia; izan ere, euskal diaspora ez dago beti presente euskal literaturan, baina Amerika, leku edo esparru literario bezala ager daiteke. Hori berori nola izan den jorratua aztertu aurretik, Status Questionis bat egin beharko dugu.

Euskaldunek Amerikarekin izan duten harremana oso aspaldikoa da, ezaguna denez. Amerika «deskubritu» aurreko garaietan bazuten harreman hori. Ameriketako indioekin *pidgin* bat jorratzera iritsi ziren. Amerikako indioekin tratua izatean haien esamoldeetan zenbait euskal esamolde geratu direla ezaguna da, baita ere:

[...] y en la región tan remota como Terranova han aprendido los salvajes montañeses (que dijimos arriba) con la comunicación que tienen con los marineros bascongados que van cada año por el pescado bacalao, que entre otras cosas preguntándoles en bascuence: *nola zaude*, cómo estás, responden graciosamente: *Apaizac obeto*, los clérigos mejor: sin saber ellos, qué cosa es clérigo, sino por haberlo oído (Martínez de Isasi, 1850, 154. or.).

Fray Juan de Zumarraga (Durango, 1468 - Mexiko Hiria, 1548) bezalako euskaldunek ere oihartzun handia izan dute Ameriketan eta, literatura utzi ez badigute ere, euskarazko testuak utzi dizkigute, nolabait hainbat urtetan Ameriketan bizi arren eta amerikarrez arduratuta lan egin arren, jatorria ez zuten ahazten. Adibidez, 1537an badugu horren erakusgarri bat: gotzainak bere

---

1. Arrosagarayren liburuan, hitzaurrean.

arreba Katalinari gutun bat idazten dio, euskarazko antzinako testu mardula izanik (Urkizu, 1995, 26. or.).

Hori guztia euskal literaturan nola agertu den, berriz, ez da zerbait oso modu nabarmen eta ugarian azaldua izan dena eta zerbait arakatu beharko dugulakoan gaude.

Baina, lehenengo eta behin lan honetan «euskal literatura» zer den edo zein esparru hartzen duen zehaztu beharko genuke, labur bada ere. Euskal literatura euskal kulturaren barnean aztertu nahi bada, egokia irizten diot euskal erbesteko kultura aztertzeke erabilitako irizpide honi:

Frente a aquellas posiciones que tienden a la globalización, aquí se ha optado por la particularización, de manera que se asume la idea y realidad del hecho cultural como concreción de las facultades intelectivas del hombre formuladas en obras artísticas, de pensamiento o de comunicación (Ascunce, 1994, 14. or.).

Kontzeptu honen testuingurua ilustratzeko interesgarria da Ibai Iztuetak egindako entsegua: *Cultura Vasca & Euskal Kultura* (Iztueta, 2005). Bertan euskal kulturaren eta euskal hizkuntzaren arteko harremana jorratzen du idazle gipuzkoarrak eta haren azterketaren corpusa dira neurri handi batean Euskal Herrian garatu diren diskurtsoak, ardatz hauen inguruan betiere dihardutenak: euskal kultura eta euskara. Izan ere, giltzarria da hizkuntzaren eta kulturaren artean dagoen lotura. Josu Amezagak dioen moduan (Amezaga Albizu, 1995, 149. or.):

[...] hizkuntzak gaineratiko kultur osagaiak egituratzean eta kultur batasun bat ezartzen duen papera, ez da mugatzen osagaiok bere arauetara —hots, bere esangura eta lotura harremanen egituretara— makurtzera.

Bestalde, euskal kultura euskaldunen humanismoari edo gizabideari lotuta izan da. Zer den gizabide hori jakiteko, zenbait joerari edo jarrerari begiratu behar zaie, batez ere gizakiari dagozkion arazoan aurrean gizakiak dituen jarrerei erreparatuta. Gainera, kontuan hartu behar da euskal gizabide hori etengabeko aldaketan dagoela. Baina nonbaitetik ei dator eta nonbait horrek izan du hezurdura bat edo egitura bat, Euskal Herrian bizi ahal izateko gizakiek garatu zituzten jarduerekin lotuta izan da eta gizabide horretan eragin duen kristautasunean ere ulertzen da. Gaur egun deserrotze-fenomeno asko ari da jasaten eta gizabide hori krisi sakon batean dago azkeneko lau hamarkadetan (Barandiaran Aierbe, 1977, 25. or.):

Así se forma entre nosotros, como en otras partes, desde luego, una masa cada vez más voluminosa de extrovertidos y, por lo tanto, de alienados. Y el auténtico

humanismo vasco, elemento primordial de la cultura de nuestro pueblo, se halla en crisis.

Euskal kulturaren barneko euskal literatura ere krisian dago, krisi hitzaren zentzurik aseptikoenean, nahi bada, eta krisi horren zantzu bat da «euskal literatura» terminoaren inguruan oraindik orain galdetzea, eztabaidatzea eta iritzi desberdinak izatea<sup>2</sup>. Gure kasuan «euskal literatura» euskaraz sortua izan zen literatura izango da; agian, «euskaraz egindako literatura» esan beharko genuke, euskarazko literaturaren sisteman sortutakoa, nahiz eta egilea jatorri ez euskaldunekoa izan (edota euskaldun berria izan). Mitxelenak adierazi zuen horrelako zehaztapen bat egin beharko litzatekeela (Michelena, 1988, 13. or.). «Euskal» elementua izateak laguntzen du, Jesús María Lasagabasterrek adierazten duenez: «[...] el adjetivo euskérico “euskal” dice referencia a la lengua –euskaldun, euskaltegi– [...], mientras que el adjetivo castellano “vasco” no tiene al menos necesariamente esa referencia lingüística» (Lasagabaster, 2002, 24. or.).

«Literatura vasca», ordea, euskaldunek (euskal jatorrikoek, euskal herrian jaiotakoek, baita euskaraz idazten ez dutenek) egiten dutena izendatzeko erabili da inoiz, dela gaztelaniaz, dela frantsesez, dela ingelesez, dela euskaraz. Ikuspegi honen arabera, hortaz, «euskal literatura» «literatura vasca»ren zati edo arlo bat litzateke. Baina erdaraz aritzean, zilegi delakoan gaude «literatura vasca» euskaraz egindako literatura dela, baldin eta testuinguru jakin batean kontu hori justifikatzen bada.

Lan honetan, euskal literaturaren gai edo ildo bati erreparatuko diogu. Baina ezin dugu albo batera laga euskaraz idatzia izan ez den literatura. «Euskal diaspora Ameriketara» delako gaiak, ezaguna denez, ingelesez argitaratua izan den literaturan izan du eta du presentzia handia.

Azkenik, sarrera honen hondarrean «euskal diaspora» kontzeptuari buruzko zertzelada batzuk emango ditugu. Ez dagokigu orain gai hau hemen jorratzea, baina bai, datu adierazgarri zenbait ematea haren garrantziaz jabetu gaitezen.

- Louis d’Etcheverry Iparraldeko diputatuak adierazi zuen 1832.etik 1891. era doan epean 79.252 zuberotar, baxenabartar eta lapurtarrek emigratu zutela Ameriketara, urtero batez beste 1.321ek.
- Euskal Lurraldeetan urtero XIX. mendean zehar bost mila gazte sasoitsuz gabetzen zen (Urkizu, 1995, 34. or.).

---

2. Euskal literaturaren funtzioaren inguruan ere badira tirabirak, baina Villasantek bere proposamena egiten du modu zehatzez, berriro ere «euskal kultura»ren kontzeptura itzuliz: «Esta literatura antigua (vasca) está llamada a cumplir una función de servir de fundamento para esta labor de despegue de la cultura vasca. No tenemos otro fundamento que agarrarnos a él» (Villasante, 1978, 126. or.).

- Munduan 10.000.000 inguru omen dira euskal jatorria duten lagunak eta euskal kultura beren gisan biziarazten dutenak.
- Munduan zehar 150 euskal etxetik gora dago.

2000ko erroldaren arabera, Ameriketako Estatu Batuetan euskal jatorriko 57.000 lagun bizi dira: Kalifornian 20.868, Idahon 6.637, Nevadan 6.096, Washingtonen 2.665 eta Oregonen 2.627. Kopuru honi buruzko eztabaida handia da, hala ere, 1980ko errolda baino lehen «euskotar» kategoria ez baitzen erroldan jasotzen.

Arantzazu Ametzaga Iribarrenek (2009, 17. or.) ere zenbait zertzelada jakingarri eskaintzen dizkigu euskaldunek Ameriketara joateko joerari buruzkoak:

Hay datos de vascos instalados en California entre 1849-51, en plena fiebre del oro, aunque es más tarde cuando se emprende el éxodo de los pastores de ovejas de Idaho y California, pero la gran parte de la inmigración vasca se dirige a Argentina y Uruguay.

En 1830 encontramos 17 agencias en Burdeos y Baiona que ofrecen sus servicios para el transporte de jóvenes, aumentando en 1880 a 23 agencias comerciales del gran éxito económico. Los nombres de sus organizadores son Belemere, Brougues, Altube, Etchegaray... vinculados a armadores de barcos y a las autoridades consulares.

Argi dago, beraz, euskal emigrazioak euskal kulturaren eta gizartean utzitako lorratza. Pío Pérezek (2016, 392. or.) egiten duen baieztapenarekin bat gatoz:

No es aventurado considerar que junto con los conflictos armados sufridos y con los procesos de industrialización conocidos, la emigración se ha constituido como fenómeno social que más ha afectado a la vida cotidiana de País Vasco. Por ejemplo, la emigración ha tenido una importancia capital en la estructura demográfica de la población [...]

Euskaldunak atzerrian izan dira aspaldiko urteetatik «mertzenarioak, misiolariak, mariñelak, merkataria»<sup>3</sup> eta Ameriketara, Filipinetara<sup>4</sup> eta bestelako herrialde, lurralde eta kontinenteetara hedatu dira mendeetan zehar eta horregatik Jose María Iparragirrek konposatutako «eman ta zabal zazu/munduan frutua» delako bertso-lerroak euskaldunek izan duten munduan barreiatzeko joera irudikatzen duela uste izan da.

---

3. *Amerikanuak* liburuaren 2. kapituluak izenburu hori darama ingelesez: «Mercenaries, Missionaries, Mariners, and Merchants» (Douglass & Bilbao, 2005, 61-116. or.). Biziki interesgarria da euskaldunen aurreneko emigrazioak eta aurreneko diasporak ezagutzeko eta haien bilakabidean sakontzeko.

4. Filipinetara aurreneko euskaldunak 1521ean ailegatu zirela dokumentatzen da eta konkistatzaile, esploradore, misiolari eta bestelako rola jokatu dituzte harrezkerotik irla horretan, izen hauek ezagunak bilakatu direlarik: Elcano, Legazpi-Urdaneta. Euskaldunen eragina irla horietan *Basques in the Philippines* delako liburuan dago aztertuta, besteak beste (De Borja, 2005).

# 1. «Euskal gaia»: XX. mendearen bukaera arteko ibilbidea mundu ingelesean

Mundu anglo-amerikarrean, edo errazago esatearren, mundu ingelesean, «euskal gaiak» zer-nolako ibilbidea izan duen edota zer-nolako oihartzuna izan duen ikustea dagokigu orain. Ibilbide hori deskribatu eta aztertzeke zenbait lan giltzarri ditugu.

Giltzarri horien artean, Richard Etulain (1977) ikertzailearena dugu: «The Basques in Western American Literature». Beste bat, Jon Bilbao eta W. Douglas-en *Amerikanuak. Basques in the New World* (1975) izenburuduna dugu, zenbait berrargitalpen izan dituen (guk, 2005eko edizioa erabiliko dugu).

Etulainek ibilbide literario bat egiten du azalduz nola agertzen diren euskaldunak Amerikako mendebaldean girotutako narrazioetan (eleberriak gehienbat, baina «short stories» direlakoetan ere bai).

Euskaldunek eurek euren buruaren berri gutxitan eta oso modu berankorreen eman duten arren, badugu salbuespen bat: Kalifornian garatutako euskarazko kazetaritza.

[...] the limited educational background and reading habits of the Basque immigrants crippled efforts to create a Basque-language press. There were only two nineteenth-century attempts to do so. The American-born lawyer Martin Biscailuz founded a newspaper entitled *Escualdun Gazeta* (Basque Gazette) in Los Angeles in 1885. [...] In 1893 José Goytino, a journalist by trade, founded the newspaper *California'ko Eskual Herria* (California Basque Land). It proved to be considerably more succesful than the *Escualdun Gazeta*, since it was published until 1898. It had distributors in San Francisco, San Diego, and Mexico City (Douglas eta Bilbao, 2005, 368. or.).

Ez gara hemen asko luzatuko alderdi hori jorratu dutenak batzuk izan baitira (Díaz Noci, 2001; 2009). Baina bai aipatuko dugu euskarazko kazetaritza horren bizitza laburrean, besteak beste bertso jarrien adibide ugari ditugula, non euskaldunek eurek Ameriketan bizitakoak kontatzen dizkiguten. Horiek bai, euskal literaturatzat hartzen ahal ditugu, ahozko estiloko literatura diren arren. Geroago jorratuko dugu azpigenero hori.

Amerikako mendebaldean euskaldunen aipamen literario goiztiarrak XIX. mendearen bukaeran hasten dira (deskriptiboak eta baloratzailleak izan nahi duten), kazetaritza-aipamenak izaki gehien-gehienak.

Fikzioan euskaldunak agertu arte XX. mendearen hogeiko hamarkadara joan behar dugu (Etulain, 1977, 8. or.):

The first fiction dealing with the Basques appeared in the 1920's. Harry Sinclair Drago, a well-known writer of lively history and popular Western novels, was the first American novelist to deal extensively with the Basques of the United States. In 1922, he teamed with Joseph Noel to produce *Whispering Sage*, which pictured Basque settlements in the Paradise Valley of northern Nevada.

Ondorenean datozen narrazioetan Ameriketako begirada izango da, euskaldunez baliatzen direnak pertsonaiak eta zenbait estereotipo eta jarrera irudikatzeko. Hona hemen zenbait egile, euskal pertsonaiak asmatu dituztenak euren narrazioetan:

Cave, Claire (1937). *Wild Peach*. New York: Gramercy.

Davis, H.L. (1935). *Honey in the Horn*. New York: Harper and Bros.

Davis, H.L. (1953). *Team Bells Woke Me*. New York: Morrow.

Davis, H.L. (1959). *Kettle of Fire*. New York: Morrow.

Drago, Harry Sinclair<sup>5</sup> (1922). *The Whispering Sage*. New York: A.L. Burt Co. With Joseph.

Drago, Harry Sinclair(1924). *Following the Grass*. New York: The Macaulay Co.

Drago, Harry Sinclair(1933). *The Desert Hawk*. New York: The Macauley Co.

Howles, Joaquina Ballard (1964). *No More Giants*. London: New Authors Limited.

Hyde, Dalton O. (1973). *The Last Free Man*. New York: Dial Press.

Ross, Zola (1950). *Tonopah Lady*. Indianapolis: Bobbs-Merrill.

Scott, Kenneth D (1960). *Frozen Grass*. New York: Carlton Press.

Zerrenda honetan ez dut Mirim Isasi kokatu; izan ere, bestiak ez bezala Mirim Isasi, ingelesez idatzi arren, euskal jatorrikoa da. 1940an *Basque Girl* argitaratu zuen. Handik pare bat urtetara (1942) *White Stars of Freedom. A Basque Sheperd Boy Becomes an American* argitaratu zuen Melcena Burns Dennyrekin batera. Lehenengoan Mirim-ek bere haurtzaroko zenbait pasadizo kontatzen ditu, zeinetan Euskal Herriaren ohiturak, ipuinak eta elezaharrak agertzen diren:

Pero la tierra que evoca Isasi no es una tierra cualquiera; es la tierra de la lengua, de la fe (uno de los capítulos del libro se titula «To be Basque is to be faithful»),

---

5. Argitaratu gabeko masterreko lan bat egina du Eurne Arostegik (2014) egile honi buruz. Euskaldunen irudia eta estereotipak nolakoak diren aztertzen hasita dago Harry Sinclair Dragoren lanak erabiliz.

de las costumbres, de la tradición, del pasado. Sólo mediante la preservación de este pasado puede una mantener intacta su identidad, su ser euskaldun... (Ezkerra, 2011).

Euskal nortasunari eutsi nahi dio, beraz, Isasik bere lurrarekiko lotura duten narrazio horiek. Esti Ezkerrak esan bezala, ez da edonolako lurra: bizitzaren zentzua ematen dion fedearen egoitza da, mundu honetan nortasun horri eustea izango delarik egitasmo transzendentala eta, hori, modu narratiboan erakusten saiatzen da, euskal jatorriko gaztetxo amerikarrei baliagarria izan dakien. Zama didaktikoa duen narrazio-liburua dugu, jakina, pasa den mendearen 40ko hamarkadaren testuinguru kulturean kokatu behar dena; izan ere, gaur egungo ikuspegitik didaktismo-zama larregizkoa duela pentsatzen duenik izango baita. Horrezaz gain, badago borondate bat ahozko tradizio bati segida emateko ingeles hizkuntzan eta horretan istorioek badute indarra (ahozko tradizio hori estilizatua, egokitua eta, agian, helburu literarioekin manipulatu izan den arren).

*White Stars of Freedom* (1942) eleberria ere gazteentzat dela antzematen da hasiera-hasieratik. Kasu honetan Narbik dugu protagonista. Euskal Herritik Ameriketako Estatu Batuetara bizitzera joan den gaztetxo bat da Narbik. Liburua oso memento garrantzitsuan kaleratu zen: alde batetik, Espainiako Gerra Zibila bukatu berria zen eta estatu-kolpe militarra burutu zuen alderdia buru zegoen Franco jeneralaren aginduetara; bestetik, Pearl Harbour-en eraso gogor bat jasan zuten estatubatuarrek eta II. Mundu Gerran sartzeko zorian zeuden. Diasporako euskaldun askok espero zuten AEBko gobernu euskaldunen alde jarriko zela eta horra liburuaren helburua:

En ese sentido, se trata de una obra cuya función es atraer la simpatía hacia los vascos que aman la libertad, pero se han visto desprovistas de ella y, por ello, han tenido que refugiarse en otro país que también ama la libertad (Ezkerra, 2011).

Dena dela, nazio berri baten parte bilakatzearen zailtasuna ere agertu nahi du liburu horrek, norberaren identitateari uko egiteak dakartzan arazoak, dilemak eta zalantzak protagonistarengan pertsonifikaturik. Izan ere, badirudi Isasik hauxe adierazten digula: halabeharrez amerikar sentitzeak edo izateak jatorrizko identitatearen zati bat kentzea dakarrela eta amerikarra izan behar horretaz aritzen da istorioan zehar (euskaltasunarekiko ahalik eta leialena izan ahal izateko baldintzapean<sup>6</sup>).

---

6. Lehenengo pertsonan azaldutako protagonistaren pentsaketa batzuk esanguratsuak dira. Adibidez: «I too wanted to be American. But instead of wishing to shed everything about me that was Basque, I wanted to bring all that was good as a gift to my beloved new land» (Nik neuk egindako itzulpena: «Nik ere amerikarra izan nahi nuen. Baina niregan euskalduna zen guztia aldatu beharrean, nik nahi nuen ona zen guztia opari bezala, nire lurralde berriari egindako opari bezala, hain zuzen») (Isasi, 1942, 29. or.).

## 1.1. Laxaltarrak

1957an beste mugari garrantzitsu bat dugu. *Sweet Promised Land* lan literarioaren argitalpenaren urtea da, Robert Laxalt-ek (1923-2001) idatzia. Aurreneko liburua da euskal jatorriko amerikar batek idazten zuena, non euskaldunen emigrazioa Ameriketara kontatzen baitzen lehenengo pertsonan. Berez, adiskide batek proposatu zion idatz zezala istorio epiko bat, non Ameriketarako emigrazio osoa irudikatuko baitzen pertsona baten emigrazioa kontatuaz. Robert Laxaltek halaxe egin zuen baina ukitu pertsonal eta autobiografiko handiarekin.

A colleague had suggested to him that he should take an epic approach to the Basque-American experience in the American West, and so he struggled to universalize the details of one man's journey so they would represent the odyssey of a whole people's emigration to America (Douglas, 1997, xviii).

Ukitu pertsonal hori haren aita Dominique-ren izaera eta pasadizoak kontatuaz gauzatzen da, Ipar Euskal Herritik Amerikako mendebalera joandako euskalduna, nolabaiteko Euskal Herriaren alegoria diasporikoa, Joseba Gabilondok proposatu zuen bezala (2016, 227. or.). Eta arrakasta lortu zuen Robert Laxaltek, bai Amerikako mendebalean bai bertako euskaldunen artean:

*Sweet Promised Land* provided the Basque-Americans with their own literary spokesman. Dominique's story encapsulated a little bit of the struggle experienced by most Basque-American families, and Robert Laxalt's simple eloquence in narrating it captured the imagination of the wider public. In a sense, for Basque-Americans the book's success legitimated their own ethnic sentiments –even to themselves. Laxalt received poignant letters from Basques throughout the American West thanking him for reinforcing their pride in their heritage (*Ibidem*, xiii).

Etulainen lana argitaratu eta hogeita bat urtetara edo, David Río-k beste liburu-kapitulu bat argitaratu zuen: «Basques in the Contemporary Literature of the American West» (1999). Etulainen lanean oinarrituta azken hogeitaz urte haietan gai honen inguruan sakontzeko zegoena jorratzen du. Robert Laxalten eragina (bere lan literarioan oinarritua) azaltzen saiatzen da horrela:

In fact, as a result of Laxalt's impressive achievements with his writings about the Basques, both in Europe and in the New World, he has become not only a literary spokesman for the Basque-American community, but also a major literary interpreter of Basques in general (Río, 1999, 276. or.).

David Río-k azaltzen duenez, Laxalten eleberrietan euskaldunak oro har ezaugarri positiboekin agertzen dira eta noiz edo noiz modu ia erromantikoan.

Hala ere, egileak ez du ezkututzen euskaldunek Euskal Herrian bizi zuten pobrezia edota miseria, zeina izango baitzen arrazoi nagusia handik alde egiteko. Fokua euskal diasporaren alderdi tradizionaletan jarrita dago, gehienbat.

Esti Ezkerrak eta Marijo Olaziregik (2009) artikulu bat argitaratu zuten *Erlea* aldizkarian: «Robert Laxalt-en *Sweet Promised Land*: ... eta etxea mendietan zuen». Liburuaren gatazka nagusia identitatearekin lotuta omen dago egileen ustez, nortasun-negoiazio bat dagoelako bertan. Izan ere, Dominique euskaldun sentitzen da<sup>7</sup>, baina bere euskaltasuna bizitzeko modua ez da Zuberoan bere senideek bizi duten berbera. Bitarteko espazio batean bizi du bere identitatea (Ezkerra eta Olaziregi, 2009, 51. or.), dislokazio edo deslekutasun batean. Artzain zaharrak 47 urte eman ditu Ipar Amerikan eta denbora horretan guztian tarteko gune batean kokatzen du bere nortasuna, immigranteen gunean; horregatik agian sentitzen da hain eroso aireportuan Puerto Ricoko immigranteekin solasean, gauza asko konpartitzen dituztelako, bibentzia asko... agian gaztaroan bere Euskal Herriko arrebekin konpartitutakoak baino. Horregatik, Euskal Herriko bere sorterria eta senideak bisitatu ondoren *home*-ra (Laxalt, 1997, 170. or.) itzuli nahi du, dagoeneko bere sorterria ez delako bere aberria.

Robert Laxaltek hamazazpi literatura-lan utzi zituen eta horietan guztietan nola edo hala euskalduntasuna presente dago inplizitu edo esplizituki, eta gehienetan AEBko ikuspegi eta egoeratik eskainia izaten da. Baina badira literatura-lanak «Mundu Berria» kokalekutzat ez dutenak, ezpada «Aberri Zaharra» gertaera-lekutzat dutenak, *A Cup of Tea in Pamplona* (1985), kasurako. Trilogia batez hitz egiten du Warren Lerude-k (2014, 249-261. or.), *Sweet Promised Land* liburua argitaratu orduko bildutako informazio eta idazkietan oinarrituta: 1. *The Child of the Holy Ghost* (1992), 2. *The Basque Hotel* (1989), 3. *The Governor's Mansion* (1994).

Laxalt-en eraginak izan zuen segida euskal jatorriko zenbait egilerengan: Louis Irigaray eta Joseph Eiguren egileengan, adibidez, hurrenez hurren *A Shepherd Watches*, *A Sheperd Sings* (1977) eta *Kashpar* (1988) eleberriak karrikaratu zituztenak.

*Kashpar* narrazioari buruz, zertzelada bat emate aldera, esango dugu 1988an izan zuela lehenengo edizioa eta 2014an bigarrena, Nevadako Unibertsitateko

---

7. Ez du euskara galdu eta horrek, linguistikoki, behintzat euskaldun egiten du. Pariseko aireportuan lanean dagoen langile batek galdetzen dio euskalduna ote den: «[...] the clerk looked up without warning and said to my father, "Eskualduna?". My father jumped as though he'd been prodded with a needle. He regarded the clerk for an instant, and then nodded his head and answered, "Bai, Eskualduna naiz"» (Laxalt, 1997, 81. or.). Identitatearen parte bat da, noski, baina atzean geratzen ari den alderdi bat, bere Ameriketako ibilbide berrian eta identitate-espazio berrian jada horren giltzarria izango ez dena.

Center for Basque Studies-ek sutatua. Ingelesez dago idatzita, jakina, baina narrazioaren estiloari dagokionez euskararen kontra-estiloa antzematen dela esan daiteke. Joe Eiguren (1915-1996) da idazlea, Kashpar ezizenez ezagutua Ameriketako euskal komunitatean. Bere haurtzaro-gaztaroa, bere Ameriketarako bidaia-emigrazio-prozesua, Munduko Bigarren Gerran amerikarrekin bere parte-hartzea, bere lan eta maitasun-kontuak, bere lana eskal kulturaren alde Ameriketara... Narrazioa oso mamitsua da, fikziozkoa ez den arren, autobiografikoa eta, agian, subkontzienteki R. Laxalten eraginpean moldatua atal batzuetan.

Euskal narrazioaren itxura dauka: badirudi euskaraz pentsatzen duena ingelesez jartzen ahalgintzen dela. Eigurenen *Kashpar* eleberria ingelesez idatzia izan arren, bere narratiban euskal ahozko kontakizunaren estiloa agerikoa da. Pasarteetan (adibidez, 10. kapituluko lehenengo orrialdeetan) ikusten da nola egileak ohiko formulazio orokorrak erabiltzen dituen («all jobs have certain aspects, good and bad»), entzuleari zuzenduriko aparteko iruzkinak («which I never was!») edota progresioz osatutako errepikapenak («for a week, ten days, or even longer»). Horrez gain, esaldi luzeak eta lotura sinpleak erabiltzen ditu, ahozko kontakizunaren erritmoa gogoraraziz. Horrek guztiak lekukoaren kontakizunetan ohikoa den konfiantzazko eta gertutasunezko ahotsa sortzen du, euskal ahozko tradizioaren jarraipen gisa, nahiz eta testua ingelesez eman. Bitxia da nola azaltzen duen Boisen (Idaho estatuko hiruburua) euskara irakasteko erabakia (Eiguren, 2014, 210. or.):

This group of young dancers performed throughout the U.S. representing Idaho in New York, Washington D.C. Rotunda, Seattle, Washington World's Fair, and other places and often were asked who were the Basques and they couldn't answer very well. These youngsters' grandparents did not have the chance to learn Basque history because the Spanish authorities wouldn't allow it so they couldn't pass it on to their children, but they did teach the Basque language to their children in the U.S.A. who in turn their children failed to teach to their offspring, which I am guilty of too. So, when away from home in New York of wherever and a member of Oinkari was asked to say a few words in Basque, they couldn't. They found this situation somewhat awkward, so they decided that they should learn Basque. A delegation of young Oinkari dancers came to our home in Homedale and asked if I would teach them some Basque and I accepted the challenge.


Pasarte hau bitxia da, izan ere, euskararen irakaskuntza ez da bertako familien ohiko transmisio naturaletik sortzen (pasarte honetan agertzen direnen kasuan

behintzat), baizik eta dantza-talde baten ibilaldi publikoetan izandako lotsak eta hutsune linguistikoak bultzatuta. Horrek erakusten du nola identitate-beharrak –besteek galdetuta ezin erantzuteak– pizten duen hizkuntza ikasteko borondatea, ohiko transmisioaren hutsunea konpentsatzeko.

XX. mendearen azken hamarkadetan euskal artzainaren irudiak erakargarria izaten jarraitu zuen euskal jatorririk ez daukaten idazle amerikarengan ere. Ann N. Clark-en *Year Walk* (1975) eta Richard Stookey-ren *Kinsella's Man* (1994) horren bi adibide ditugu. Euskaldunen belaunaldi berrien ikuspegia emate aldera, saihetsezina da Monique Urzaren *The Deep Blue Memory* (1993) eleberria. Monique Urza Robert Laxalten alaba dugu: aipatu berri dugun eleberria psikologikoki autobiografikoa da egilearen esanetan eta gatazka bat azalarazten du: Ameriketako kulturara egokitzearen eta norberaren ondareari eustearen arteko gatazka. Horren beste alderdi bat hauxe dugu: familia edo arbasoekiko leialtasuna eta norberaren identitatea bilatu, espermentatu eta jorrazteko joera nolabait kontrajartzen direla. Izan ere, harrera-herrialdean integratua izateak bere saria dauka, baina norberaren ondareari uko egiteak ere bere kostua dauka eta kontu horiek Urzaren literatura-ekoizpenean ageri dira.

Estatubatuarren literaturaren erreperitorioan kokatzen den eleberri honek, alde batetik, euskal «gatazkara» garamatza; izan ere, istorioa Euskal Herrian kokatuta dago, gutxi gorabehera, Madrilgo Atochako atentatuak izan zireneko garaian (2004an, jihadistek trenbideetan-eta bonbak jarri zituzten hartan). Bestalde, ikuspegi amerikarra (desenkantatua edo zapuztua) ere oso presente dago eleberrian zehar, euskal «gatazka» ilun eta korapilatsuaren albo-kaltea izaki. Ikuspegi amerikar hori, batez ere Joni pertsonaiarengandik datorkigu: eleberriaren narratzaile inplizito edota intradiegetikoaren ikuspegia. Joni ingeles irakaslea da Murigako ikastetxe batean, eta ia berrogei urte eman ditu bertan, erretiroa hartzeko zorian dagoelarik: bistan da, neurri batean integratu dela, herriko hainbat kontu ezagutzen dituelako, baina, era berean, ezin izan du bere izaera «kanpotarra» atzean laga. Hori areagotzen da bertako hizkuntza, euskara, ez duelako ikasi (Urza, 2015, 70. or.):

When Robert responded to Santi in Basque, the only word I recognized (after forty years in Muriga) in the jumble of unlikely consonants were Oso *ondo* (Very good) and *Bihar arte* (See you tomorrow).



**Monique Urzaren semeak, Gabriel Urzak, *All that Followed* izenburudun eleberria kaleratu zuen 2015ean.**

Joni istorioan pixka bat *outsider* sentitzen da eta hori areagotzen da Robert Duarte eta haren emaztea Murigara etortzean. Bikote hori Ameriketako Estatu Batuetatik dator eta, Roberten kasuan, ikastetxe berera dator, esplizituki esan ez arren, Joni irakasle zaharraren lekua «betetzera». Horri gehituta, Robert amerikarra izan arren euskal jatorrikoa da, euskaraz daki eta herrian «euskaldun» deitzen hasi dira batzuk. Beraz, hasieratik Joni baino askoz errazago «integratuko» dela ematen du.

Hiru narratzaile intradiegetiko ditu eleberriak (Schaub 2015), beraz:

The novel is told from three points of view. Besides Joni, who moved to Muriga as a young man and stayed to teach English, there's Mariana, whose politician husband is kidnapped and assassinated by a group of young Basque separatists, and Iker, serving time for that crime. Joni and Mariana are estranged friends; Iker was Joni's high school student.

Aukera ausartari eusten dio Gabriel Urzak eleberri honetan; izan ere, bera amerikarra da kulturaz eta hizkuntzaz, nahiz eta bere arbasoen jatorria Euskal Herrikoa izan eta bertan egonaldi batzuk egin izan dituen. Euskara ere zertxobait ezagutzen du Gabriel Urzak eta eleberrian esaldi labur edo esamolde solte batzuk tartekatzen ditu han-hemenka. Fikziozko herri bat sortzen du, Muriga,

eta fikziozko herri horretan «euskal gatazkak» egin du bere eraso: bertako zinegotzi bat bahitu eta erail egin zuten duela lau urte. Gainera, istorioa hasten denean, arestian adierazi bezala Madrilgo Atochako atentatuak gertatu berri dira. Iker pertsonaia kartzelan dago kale-borrokan aritzeagatik (gutxi falta zaio bukatzeko) eta zenbait gogoeta egiten ditu «borroka armatuari» buruz. Kartzelako bakardadean borrokaren «diskurtsoa» (beste garai batean berak onartua) distantziaz eta kritikaz berrikusten du eta bere «borrokakidea» den Asierrekiko ere zenbait pentsamendu kritiko etortzen zaizkio (Urza, 2015, 26. or.):

Whenever Asier caught me clowning around during one of these speeches he'd tell me that I should pay attention, believe more in the struggle. I wanted to wave my hands in front of us and say, «What struggle? We live in a small city with a nice beach. They teach Euskara in the public schools, and the street signs are in both Basque and Spanish. Your father is a banker, and you were a Real Madrid fan until Ramón and his lectures». But I knew Ramón spoke in a language that Asier had been learning over the last year –the language of the «armed struggle», of Marxism-Leninism, of «wealth condensation» and «anti-imperialism». He was in Muriga's sad answer to the Ché poster that Asier had pinned to his bedroom door.

Euskal gatazka Euskal literaturan jorratua izan denean, zenbat joera narratibo erakusten dira, hala nola gatazka existentziala berbaldi politikoa baino korapilatsuagoa izatea, hainbat detaile sinbolikorekin militantzia politikoindarkeriazkoa kontraesanean geratzea, errealismo zikin eta giro ilunaren bidez borroka armatuak kutsatuta bizi den herri txiki baten ezinegona adieraztea, eta abar, zenbaitetan aztertuta izan den bezala (Barandiaran Amerika, 2011).

Joni amerikarraren bakarrizketan, ironia fin batez aipatzen du «politika» ez dela modu irekian aipatzen eta badirela zenbait «jokaera» edo zenbait «kode» inplizituki onartu behar direnak «bizikidetzaz-arazoek» saiheste aldera (Urza, 2015, 72. or.):

The political situation wasn't discussed in public among Murigakoak, particularly with visitors, and I'd adopted this code a long time before.

[...] I'd learned early on that this was one of the requirements of living in Muriga –to act as if the inexplicable were simply unnoteworthy. I had come to Muriga in the Franco days, in the days when *etarras* were seen as heroes in the Basque Country, responsible for bringing about the end of the dictatorship. I knew that even if people in Muriga were annoyed or bored by these little riots, they continued to show their support by simply accepting their existence.

Iker pertsonaia behin eta berriz ari da gogoratzen bere iragana «kale-borroka»ko militante bezala eta bere begiradan agerian uzten ditu mugimendu hari eusten zion diskurtsoa, berorren estrategia manipulatzailea (Urza, 2015, 60. or.):

We went to a real political meeting in Gasteiz, not just a few kids drinking and smoking in an abandoned bunker. University students and professors spoke about the independence movement and the unfair treatment of ETA prisoners, describing them either as prisoners of war or political prisoners or as martyrs for the revolution.

Esan bezala, aukera ausarta Gabriel Urzarena, fisikoki Ameriketatik oso urruti dagoen arazo korapilatsu batean sartzen delako eta barrunbeetan arakutzen ahalegintzen delako, betiere irakurle ingelesdunak izaki eleberriaren jasotzaileak. Euskal «gai» bat sartzen da horrela ingelesezko literatura-sisteman, bete-betean, nahiz eta (guk dakigula behintzat) best-seller izatera ez den ailegatu.

Beraz, Ipar Amerikako mendebalean behintzat, literaturak oraindik euskaldunen ikuspegi osoagoa, konprehentsiboagoa eta askotarikoagoa emateke dago. Azken boladan ahalegintxo batzuk egin dira eta bide horretan jarraituko dutela ematen du.

## 1.2. Bestelako anglo-amerikar lanak euskaldunen eta euskal kulturaren inguruan

Laxaltarregandik aparte badira zenbait egile Ameriketako kultura anglosaxoian<sup>8</sup> (edo ingelesez egiten den literaturan) gerora ere euskal diasporaren berri eman dutenak. Estibaliz Ezkerrak (2012) zenbait lorratz eskaintzen dizkigu. Nobelari dagokionez, aipatzekoa da Frank Bergon (Ely, Nevada, 1953) egilearen trilogia bat, zeinean mendebaleko euskaldunen esperientzia nola edo hala agertzen den: *Shoshone Mike* (1987), *The Temptations of St. Ed and Brother* (1993), eta *Wild Game* (1995) (Ezkerra, 2012, 348. or.).

Frank Bergon-en ekarpena sakonki izan zen aztertua 2019an nazioarteko kongresu bat egin zelarik Nevadako Unibertsitatean, bertako Center for Basque Studies-ek antolatua, izenburu honekin: «Visions of a Basque American Westerner: An International Conference on the Writings of Frank Bergon». Gerora kongresu hark liburu baten izenburua itxuratuko zuen (Xabier Irujok eta Iñaki

---


8. «Kultura anglosaxoia» diogunean, alderdi linguistikoari erreparatzen diogu bereziki, ez horrenbeste alderdi etnikoari. «Euskal literatura» diogunean, euskaraz egiten den literatura adierazi nahi dugun bezala, edota «euskal kultura» guretzat euskaraz egiten den kultura den bezala, «kultura anglosaxoia» esatean ingelsez egiten dena esan nahi dugu, bestelako gogoetan sartu nahi izan gabe.

Arrietak editatua eta kaleratua 2020an): *Visions of a Basque American Westerner: International Perspectives on the Writings of Frank Bergon*. Monika Madinabeitia ikertzaileak (2020) bertan Frank Bergon-en euskal mundua aztertu zuen: «The Basque World in Frank Bergon's Fiction». Arestian aipatutako trilogiari *Jesse's Ghost* (2011) gehitu behar zaio, Monika Madinabeitiak aztertua.

Euskal «edukia» duen lehenengo eleberrian, *Shoshonen* (1987), besteak beste, nobelatu egin da indiarren azkeneko «borroka» hiri artzain euskaldunen heriotza ekarriko zukeena. Monika Madinabeitiak zehazt-mehatz aztertzen ditu eleberri horietako bakoitzako elementu giltzarriak eta zer-nolako lotura duten «euskal munduarekin» (2020, 16. or.). Hona hemen jorratzen dituen motibo literarioetako bat:

*Shoshone* recalls the distress that the Basque community largely underwent as foreigners on American land. In the tragedy, which occurred in northern Nevada in 1911, three Basque shepherds and an Anglo were killed by a Shoshone family. Afterward the Shoshone family was pursued and almost all were killed by a posse of white men. Bergon presents his fictionalized version of this story and revises the paradigms of «regeneration through violence» found in the common Anglo-versus-Native American dichotomy.

Eleberri hauen azterketa eginda dago jada Xabier Irujok eta Iñaki Arrietak editatutako lan hartan eta hemen ez dagokigu gehiago sakontzea, nahiz eta aipatzea merezi zuen.



Gretchen Skivington<sup>9</sup> (Elko, 1956) euskal jatorriko idazleak ere eleberri bat argitaratu zuen 2017an Nevadako Unibertsitateko CBS argitaletxean: *Echevarria*. Badirudi Gretchen idazlea Echevarria senar-emazteen ondorengoa dela, biloba eta/edo familia horrek sortutako ondorengoan kontakizunak agertzen dira istorioan. *College* teknikan idatzitakoa dugu *Echevarria* eta narrazio-ahots korala du. Ahotsak ez ezik, hizkuntzetan egindako erreferentziak ere ugariak dira: noski, ingelesez dago idatzita, baina han-hemenka euskarazko esaldiak, bertso-lerroak, ahozko esakerak eta abar agertzen dira. Gero, gaztelania ere (Euskal Herriatik gaztelania ere ekarri zuten euskal etorkinek, euskararekin nahasian) askotan agertzen da (Skivington, 2017, 21-22. or.):

*Etchek'an-dere handi  
ninduzun eguerdi gainian,  
Alhargun gazte gelditu nintzen  
iguzkia sarthu senian*

At noon I was  
the lady of the house  
by sunset a widow alone  
[...]

*Begi-begiz*, furtive yet intensely, she had watched him hoping this time, once just once he would turn to lighten her load, and acknowledge her pain. [...] He never turned her back again.

*Amaiera asiera da  
Ashes to ashes dust to dust  
Tuntunturrun tun  
I am Ramon.  
[...]*

Nevadan mexikarren presentzia ikusarazteko ere gaztelania —mexikar estilora— agertuko da. Narratzaile horietako bat mexikarra da eta berak lan egiten duen euskal ostatu-jatetxe baten ikuspegia eskaintzen du (Skivington, 2017, 199-201. or.):

---


9. Amazon-ek informazio hau ematen du Gretchen Skivington-i buruz: «Gretchen Skivington (1956- ) grew up in Elko, Nevada and attended college at the University of Nevada-Reno and UC-Berkeley and Davis. She teaches humanities and languages at Great Basin College in Elko. Her first book, “Echevarria” about one hundred years of Basque solitude and family in Elko was published in 2017 and highlighted at the Cowboy Poetry Gathering in Elko in January 2018».

Los güeros son muy maloras  
Se valen de la ocasión,  
Y a todos los mexicanos, nos tratan  
Sin compassion... venimos a camellar

Papi died on Tuesday. It was his liver they said. Some people say it was his heart, *sufría del corazón*. [...]

Aita Indiano es *mi padrino*, my guardian angel father with wings. I got his back too cause he's old and not a sheeper no more. [...] No one knows if he's really got the pasta, only maybe Bob Goicoechea that's his lie-year. «*Ya veremos*», says La Patrona. I guess we'll just have to wait and see. [...]

The sign outside on Main Street says our place is «Echevarria», but nobody can remember why and my teacher says it should have an apostrophe somewhere or an «s», but everybody calls it «The Steakhouse» anyway. Tío Mariano said we must be *como perros*, hungry as dogs.



Bestalde, txinatar hizkuntza edota frantsesa ere agertuko dira; alde batetik, XIX. mendearen hondarrean Nevadan izandako txinatarren uholdea ikusarazten da modu horretan. Horrezaz gain, frantziarren eragina (eta idazlearen formazio kulturala) agerrarazteko ere frantsesezko esaldi (bertso-lerro, esaera eta abar) batzuk agertzen dira. Echevarriatarrek izandako ekarpen bat Elkon badirudi izan zela *boarding house* edo ostatu bat, janleku bat ere bazena. Hor lanean aritu ziren zenbait urtetan langile eta familia txinatarrak eta, azkeneko urteetan, langile

mexikarrak. Haietako batzuk narratzaile intradiegetiko bilakatzen dira zenbait kapitulutan eta ingelesarekin batera euren ama-hizkuntzako zenbait hitz eta esamolde erabiliko dituzte, sinesgarritasuna emate aldera. Liburu horrekin Nevadaren historia multikulturala irudikatu nahi izan dela ematen du, errealitatea uste baino aberats edo korapilatsuagoa dela agertuz.

Jim Barayasarra idahotarrak bere umezaroa kontatzen du *Seven Wagons and a Half* (2019) liburuan. Kapitulu laburretan dago banatuta kontakizuna eta kapitulu bakoitzean oso narrazio txinpartatsu batez bere haurtzaroko eta gaztaroko kontuak aletzen ditu, guraso euskaldunak izanda Grand View delako Idaho herrian haztea zer den (edo zer zen agertuz). Txikitako oroitzapenek XX. mendearen lehenengo erdira garamatzate (Barayasarra, 2019, 181. or.):

My fondest memories center around growing up in Grand View, Idaho. [...] I write of experiences in my time (1935 to 1950) in Grand View.

Txikitako oroitzapen horien artean, hainbat pasadizo daude, zenbait esaldi, esamolde eta termino euskarazkoak tartekatzen ditu, bere gurasoek artean hizkuntza zaharrari eusten ziotela, nahiz eta seme-alabei asko ez erakutsi. Azken finean, Euskal Herritik joandako familia baten integrazio-prozesua kontatzen zaigu, urteetan zehar izandako gorabeherak eta istiluak larritasunik edo dramatikotasunik gabekoak izan zirela agertuz. Tartean, euskaldunen balioak eta utzitako irudi ona erakutsiko dira. Jim-en haurtzaroan euskaldunak artean «Black Bascos» izaten ziren kontsideratuak (Barayasarra, 2019, 171. or.):

At school, they were called «Black Bascos» or were told to go back where they came from. [...] The hostility even went so far as Red Hairs not wanting her daughters to date and marry a Black Basco. [...]


«That God Damn Black Basco thinks we all want to work as hard as he does». [...] Another remark was, «You know, he is a cranky son of a gun, but you have to say he's a good worker».

Ordainean, amerikarrak «Ule gorriak» edo «Red Hairs» izaten ziren garai hartako euskaldunentzat. Ule gorri haietako batzuk oldarkorrek ziren arren, beste batzuk, Jim Barayasarraren esanetan, oso pertsona onak izan ziren, tartean Grand View-eko auzoko batzuk, bihotz onekoak izan baitziren eta haiekin laguntasun benetakoa garatu zuten (*Ibidem*, 187):

Even «Red Hairs» can be good people –damm good people.

Baina txikitako kontuak ez dira liburu honen oroitzapen eta kontakizun bakarrak. Jim Barayasarrak bere unibertsitateko urteak, ezkontza kontuak

(liburua argitaratu zenean baziren berrogeita hamar urte ezkontuta zegoela), irakasle-garaiak... horiek guztiak ditu kontagai eta, beraz, XX. mendearen bigarren erdian ere murgiltzen da, betiere bere nortasun euskaldunari atxikiz, nahiz eta hizkuntzaz beti ingelesa zen nagusi.



Duela gutxiko beste ekarpen bat ingelesezko literaturaren «memoir» bat dugu, Vince J. Juaristik idatzia, non berak bere aitarekin (Joe) egindako bidaia bat Bizkaira kontatzen den. *Back to Bizkaia. A Basque-American Memoir* (2011n University of Nevada Press argialetxeak kaleratua) da kontakizunaren izenburua eta 2008. urtean kokatzen da bidaia hori, sorpresaz Vince semeak antolatua. Zertarako? Dagoeneko 78 urte dituen aita Joek aukera izan dezan (azken aldiz?) bere jaioterria bisitatzeko, bere arrebak ikusteko eta Euskal Herriaz gozatzeko. Zilegi izan bekik paralelismo bat egitea istorio honen eta *Sweet Promised Land*-eko istorioaren artean. Bigarren horretan semea Robert-ek bere aita Dominique Laxalt laguntzen du beraren azkeneko bidaian Zuberora, Euskal Herrira. Eleberriaren azkeneko zatian gertatzen da hori eta bidaia hark sinbolismo handia izango du istorioan. Dominique ere oso gaztetxoa zelarik joan zen artzain Ameriketako Estatu Batuetara. «Memoir» edo oroitzapen-liburu horretan ere Vince zeregin antzekoan arituko da bere aita Joe Juaristi bizkaitarra lagunduz.

Istorio horretan errealismo handiz islatzen dira aita zaharraren mugak Euskal Herrira joan direlarik. Zaila egiten zaio, adibidez, Joe Juaristiri ulertzea nola jada pezetak ez diren erabiltzen, euroak erabiltzen dira Europa osoan, autoetan erabiltzen den GPS sistema, eta beste hainbat gauza. Jaioterrira heltzean (Lekeitio), berriz, txikitako zenbait oroitzapen etorrizko zaizkio gogora.


Semeak ere bere gogoetak egingo ditu aita itsasoari begira ikustean (Juaristi, 2011, 25. or.):

From that vantage, as had many before him, Dad witnessed his own past and the past of his people, who built wooden ships, hunted whale, fished cod, and sailed to the New World with Columbus. He saw our origins, the beginning of man, and shed salty tears like the sea from whence we came.

*Back to Bizkaia* istorioan, bestalde, irakurle amerikarrentzat argigarriak izan daitezkeen azalpen historiko eta kultural asko daude, esate baterako, Gerra Zibilaren ingurukoak, euskal «foruen» ingurukoak, Joe Juaristi aitaren haurtzaroan izandako gertaera sozial esanguratsuak eta abar. Horrezaz gain, Vincek bere aitaren aitak nola emigratu zuen AEBra kontatzen du edo «berreraikitzen» du (Juaristi, 2011, 60. or.):

In 1910, Dad's father, Mariano, boarded a ship bound for America where his only brother, Vicente, had established himself as a reliable ranch hand, the masterful sheepherder, horseshoer, calf roper, fence builder, barn fixer, and trusted friend. Mariano planned to join him on his ranch, earn money, and send it home to feed a growing number of mouths. Mariano had two babies at this point, with another five, including Dad in 1930, to come over the next twenty-five years.

Eleberrian, esan bezala, tartekatuko dira historia eta kulturari buruzko zertzeladak, 2008an egindako bidaiaren kontuak, gogoetak, elkarrizketak, Juaristi familiari buruzko oroitzapenak, istorioak, anekdotak, eta euskaltasunari buruzko gogoetak, biziki jakingarri eta interesgarriak.



Gabriel Urzaren antzera, aldeak alde, Begoña Echeverria kaliforniarrak Euskal Herri «zaharra» ingelesezko literaturara eramaten du bere *Hammer of Witches*. A *Historical Novel* izenburua duen eleberriarekin, 2014an Nevadako Unibertsitatean argitaratua. Benetako gertakarietatik abiatzen da; alegia, ezaguna den bezala Nafarroako Zugarramurdi herriko sei emakume erre zituzten 1610ean eta horri lotuta Begoña Echeverria idazleak Salvador Zabaletaren desagerpen misterioitsua gehitzen dio trama historikoari. Sabine Elizalde pertsonaiaren erbesteratzea eta Gurrutxetegia etxeko Maria dira tramaren beste osagaiak. Gertaera ikaragarri horien atzealdean, maitasun, bihotz-urratze, sakrifizio, ausardia eta pronostiko guztien aurrean giza espirituaren garaipenaren istorio bat kontatzen da. XVII. mendeko Baztan aldeko Nafarroa irudikatze eta sinesgarritasun gehiago emate aldera, batzuetan pertsonaien arteko solasak, elkarrizketak euskaraz dira edo esaldi-zati batzuk euskaraz dira, kutsu «nafarra» duten esamoldeak nagusi izaki. Bestalde, kapitulu bakoitzaren hasieran beti agertzen da *Malleus Maleficarum*<sup>10</sup> delako tratatuaren aipamen bat, gehienetan Elizak garai hartan proposatzen zituen dotrina errepresibo edo (gaur egungo ikuspuntutik) ustez «atzerakoiak» agerian utziz eta istorioari ukitu ilunzalea erantsiz.



**Unibertsitateko profiletik hartua:**

**<https://profiles.ucr.edu/app/home/profile/bechever>**

Begoña Echeverria Chinon (Kalifornian) sortua da, baina gurasoak Baztan aldekoak ditu eta, horrezaz gain, Noka musika-taldea sortu zuen euskal

---

10. Britanica delakotik hartua: «**Malleus maleficarum**, (Latin: "Hammer of Witches") detailed legal and theological document (c. 1486) regarded as the standard handbook on witchcraft, including its detection and its extirpation, until well into the 18th century. Its appearance did much to spur on and sustain some two centuries of witch-hunting hysteria in Europe. The *Malleus* was the work of two Dominicans: Johann Sprenger, dean of the University of Cologne in Germany, and Heinrich (Institoris) Kraemer, professor of theology at the University of Salzburg, Austria, and inquisitor in the Tirol region of Austria. In 1484 Pope Innocent VIII issued the bull *Summis desiderantes affectibus*, in which he deplored the spread of witchcraft in Germany and authorized Sprenger and Kraemer to extirpate it», in <https://www.britannica.com/topic/Malleus-maleficarum>

kantagintzari eta euskaraz sortutako abestiei esparru interesgarria eskainiz Ameriketako Estatu Batuetan. Euskaraz konposatu ditu zenbait abesti, hala nola «Kafesnari esker» edo «Izpegi» (Barandiaran Amarika 2016). Bere doktoregoko ikerketa euskararen biziberritzean zentratu zen eta egun Kaliforniako Unibertsitatean, Riversiden, da irakasle. Beraz, euskal kultura eta hizkuntzan aditua da eta *Hammer of Witches* liburuan demostratzen du ingelesez narrazio historikoa idazten dutenek badutela harrobi interesgarria Euskal Herriko historian eta mitologian.

2013an Sydney Avey idazleak *The Sheep Walker's Daughter* eleberria kaleratu zuen (Hope Spring Books argitaletxean). Gerora, 2017an Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies-en laguntzaz beste edizio bat izan zuen. Hiru fikziozko eleberri historiko («historical fiction novels») idatzi ditu eta hiru horietatik *The Sheep Walker's Daughter* eleberria da «euskal istorio» bat bere baitan duena. Leora izeneko emakume zahar bat hil berri da eta haren alaba Doloresek ez daki deus beraren aitari buruz, ama defuntuak ez baitzion kontaktzen ezer gai horretaz, iragana atzean utzi nahi baitzuen. Baina Doloresengan desio handia sortzen da beraren aitaren gorabeherak ezagutzeko eta denbora gutxian jakin du aitaren anaia, Iban Murega, AEBn bizi dela eta harekin enkontru bat antolatzen du. Iban Muregak kontatuko dio bere anaiaren historia eta zergatik alde egin behar izan zuen «Espainiara», Nafarroara, hain zuzen, emaztea eta alaba (bat) AEBn utzita. Deskubrituko du, gainera, ahizpa bizki bat duela, aitarekin batera Euskal Herrira joan zena oso txikia zelarik. Eleberriak bi narratzaile nagusi (eta intradiegetiko) ditu: Dolores, Alonso Moraga «artzainaren» alaba, eta Valerie, Doloresen alaba. Valerie aurreratu da eta Espainiara joatea lortuko du, besteak beste, bere familiaren datuak ezagutzeko, deskubritzeko. Jakingo du Alaya dela bere izeba (bere amaren ahizpa bizkia) eta Nafarroan bizimodu «arrakastatsua» daramala. Istorioak apurka-apurka euskal kulturaren dzanga egitera eramaten du irakurlea eta norberaren erroen bila doan ibilbide bat eskaintzen zaigu, sorpresaz beteta, agian irakurle amerikar batentzat kitzikagarria, norberaren «cultural heritage» kontu garrantzitsua baita AEBn.

Horrezaz gainera, *The Sheep Walker's Daughter*-en neurtuta, dosifikatuta, baina euskal «nortasunaren» karakterizazioa egiten da apurka-apurka eta horrek interesa (intriga?) sor lezake edozein irakurlerengan. Esaterako, Donoresen osabak horrela hitz egiten dio euskaldunei buruz (Avey, 2017, 95. eta 102. or.):

Dolores, Basques are hardworking people who do what's right, generally speaking. In this country, doing what's right doesn't always get you ahead. You have to do what's smart. [...]

The women smile at me and chatter in a strange language that sounds like nothing I've ever heard. I try to identify it. Spanish –no, Welsh –no, Hungarian –no.

«They are speaking Euskara, the Basque language», Pilar explains.

Bada beste erreferentzia bat:

Esti Ezkerrak Gregory Martin-en *Mountain City* (2000) eleberriaren berri ematen digu, kontatzen diguna Nevada ipar-ekialdeko hogeita hamahiru biztanleko herrixka baten bizitza (Ezkerra, 2012, 348. or.). *Memoir* bat dugu, ustez, gordetako oroitzapenak kontatzen dituen eleberria. Mendian abandonatutako hiri batean hogeita hamaika pertsona bizi dira, eta horietatik inor ez da haurra. Hiri hura garai batean meatzarientzat eraiki zen eta esplotazio edo ustiaketa bukatu zenean jende gehienak alde egin zuen. Geratzen direnak alargunak, indioak eta Martin-en senide batzuk dira, euskal jatorria dutenak, eta jadanik biztanle gutxi dituen herri horretan eguneroko elkarrizketek (tartean txiste edo istorio xelebreak) garrantzia dute (Martin, 2000, 5-6. or.):

My uncle Mel has a Basco joke for nearly every occasion, and he tells them so often that they become highly refined. The store's five cramped, overcrowded aisles are decorated with evidence of his sense of humor. Mounted on a wall above a rack of bright orange clothes is a camouflage cap with a set of antlers growing out its top: *BASCO HUNTING HAT*. Hanging from a hook next to a few gardening tools is a plastic bag full of Cheerios: *BASCO DONUT SEEDS*. On another hook above the bread and pastries, the looped plastic off a six-pack of beer is stapled to the end of a wooden ruler: *BASCO FLYSWATTER*.

The Basco never makes out too well in these jokes. In a culture where much of the humor relies on a more familiar race or ethnic group for the butt of its jokes, and in a culture where these jokes are almost always told by someone from outside that group, the Bascos provide their own butts for their own jokes.

Honelako iruzkinek zenbait ondorioetara garamatzate: a) alde batetik, «amerikarrek» dituzten estereotipoak euskaldunekiko ez dira erraz aldatzen, eta; b) AEBko mendebalean euskaldunen presentzia meategi-herrietan ere ugaria izan zela eta espero baino oihartzun handiagoa utzi zutela, baita eguneroko esamesetan ere.